

## **‘Distopia’ izeneko lanak irabazi du aurtengo ANDOAIN LABURREAN bideo laburren lehiaketa**

- **Guztira 13 lan jaso dira edizio honetan eta, beste behin ere, Andoaingo gazteek euskaraz sortuz haien ahotsa entzunarazteko aukera izan dute.**
- **Bigarren saria ‘Atzokoa’ lanak jaso du eta hirugarren saria ‘Ilargia’ izeneko film laburrak.**

Andoaingo Udaleko Euskara Sailak eta ESCIVI-k (Andoaingo Zine eta Bideo Eskola) elkarlanean antolatzen duten *Andoain laburrean* lehiaketak baditu irabazleak, Bastero Kulturgunean gaur iluntzean egin den ekitaldian jakinarazi denez. Hala, epaimahaiak erabaki du Iratxe Sotil, Nerea Garmendia, Mikel Esteban eta Julene Zaballaren *Distopia* izeneko lana dela *Andoain Laburrean* laburmetrai lehiaketako irabazlea. Maider Lainez alkatearen eta Alexander Huitzi euskara zinegotziaren eskuetatik jaso du laukoteak 400 euroko diru-saria.

Aurtengo edizioan, seigarrena, 13 ikus-entzunezko laburmetrai original jaso dira, “sormen erakustaldia egiteko aukera izan dutelarik beste behin ere Andoaingo gazteek”, zinegotziak nabarmendu duenez. Huitzik erantsi du *Andoain laburrean* lehiaketak jada egin duela bere lekua herriko gazteen artean eta eskertu egin du aurten bereziki partaideek egin duten ahalegina, “pandemiak kasu honetan ere, gauzak zaildu egin ditu-eta”. Andoaingo gazteen esfortzua eta, baita, sormenerako gaitasuna txalotuz, Huitzik azaldu du sariketarako gazteei haien ahotsa entzunarazi eta ardurak adierazteko aukera ematen diela. Lanen askotariko gai, genero eta ikuspuntuei erreparatuta, “Andoaingo gazteek asko dute esateko eta lehiaketa hau bide bikaina ere bada herritarrengana iristeko”.

Euskaraz sortu eta gozatzeko txapelketak ematen duen aukerari ere balioa eman nahi izan dio zinegotziak: “Euskara bizirik eta indartsu nahi badugu etorkizunean, normaltasunez eta naturaltasunez ahalik eta leku gehienetan erabili behar dugu. Gazteen gaur egungo komunikazio bitarteko naturala ikus-entzunezkoa da eta, hori horrela, eduki interesgarriak euskaraz sortu eta gozatu ahal izatea funtsezkoa da”.

Bigarren saria *Atzokoa* lanak jaso du eta egileek, Maddi Davila eta Ainhize Pedreo, 200 euroko saria jaso dute ENBAko Euskara Batzordearen kideen eskuetatik. Hirugarren sariari dagokionez, 100 eurokoa; Nerea Berroeta, Sandra Vicente, Nora Blanco eta Monica Riverok osatutako taldearen *Ilargi* lana izan da. ESCIVI-ko ordezkariak eman diete saria. Sari-ematearen ostean, hiru lan sarituak ikusteko aukera izan dute Kulturguneko ekitaldi-aretoa joan diren herritar eta parte-hartzaileek.

*Andoain laburrean* bideo lehiaketa 2015 urtetik Udalak eta ESCIVI-k elkarlanean antolatzen duten txapelketa da eta ekitaldian egon da zine-eskolako irakasle eta lehiaketaren koordinatzaile den Ainhoa Aiertza ere. Bi erakundeek balioa eman nahi izan diete elkarlanari eta lorturako emaitzei. Izan ere, gazteen artean euskararen erabilera sustatu eta sormena bultzatzeko helburuarekin, edizioz edizio, herriko sortzaile gazteak lanean jarri ditu lehiaketa honek, euskara eta Andoaingo herria ardatz hartuta.

## El corto 'Distopia' gana el concurso de videos ANDOAIN LABURREAN

- Se han presentado un total de 13 trabajos en esta edición en la que, una vez más, las y los jóvenes de Andoain han tenido la oportunidad expresarse creando en euskera.
- El segundo premio ha sido para 'Atzokoa' y el tercer premio para el cortometraje 'Ilargia'.

Hoy se han dado a conocer, en un acto celebrado en Bastero Kulturgunea, los trabajos premiados en la última edición de *Andoain Laburrean*, concurso de cortometrajes que el Departamento de Euskara del Ayuntamiento de Andoain y la ESCIVI (Escuela de Cine y Vídeo de Andoain) organizan conjuntamente desde 2015. De esta manera, el jurado ha decidido que la obra *Distopia*, de Iratxe Sotil, Nerea Garmendia, Mikel Esteban y Julene Zaballa, sea la ganadora de esta edición. El grupo ha recibido esta tarde el premio de 400 euros de manos de la alcaldesa Maider Lainez y del concejal de Euskera Alexander Huitzi.

En esta sexta edición, se han recibido 13 cortometrajes audiovisuales originales, con los que una vez más, las y los jóvenes de Andoain "han vuelto a hacer gala de su gran creatividad", ha destacado Huitzi, que ha explicado que "*Andoain laburrean* ya ha se ha hecho con su propio hueco entre la juventud de la localidad". También ha agradecido el esfuerzo realizado por las y los participantes, "especialmente este año en el que la pandemia ha supuesto una complicación añadida". Huitzi, por lo tanto, ha aplaudido el esfuerzo de las y los jóvenes de Andoain y su capacidad creativa.

"Las personas jóvenes de Andoain tienen mucho que decir y este concurso es una magnífica manera para hacerse oír en euskera". "Si queremos que nuestro idioma siga vivo y fuerte en el futuro, debemos utilizarlo con normalidad y naturalidad en todos los lugares posibles. El medio natural de comunicación de las y los jóvenes hoy en día es el audiovisual, por lo que es fundamental poder crear y disfrutar de contenidos de interés en euskera".

El segundo premio ha sido para la obra *Atzokoa* y sus autoras, Maddi Dávila y Ainhoa Pedreo, han recibido 200 euros de los miembros de la Comisión de Euskera del Ayuntamiento. Finalmente, el tercer premio ha sido para el cortometraje *Ilargi*, de Nerea Berroeta, Sandra Vicente, Nora Blanco y Mónica Rivero. El premio ha sido entregado por los representantes de la ESCIVI. Tras la entrega del premio, se han proyectado las tres obras audiovisuales premiadas.

El concurso de vídeo *Andoain laburrean* es un certamen organizado por el Ayuntamiento y ESCIVI desde 2015. En el acto de entrega ha estado presente Ainhoa Aiertza, profesora de la escuela de cine y coordinadora del concurso. Ambas instituciones han querido poner en valor la colaboración y los resultados obtenidos. Con el objetivo de fomentar el uso del euskera entre las y los jóvenes y fomentar su creatividad, el concurso invita todos los años a creadores locales a realizar audiovisuales de corta duración, centrándose en el euskera y en el pueblo de Andoain.

**Andoain, 18-02-2021**